

Hiri Debekatuaren Mapa

“Elorriko emakumeek nola ikusten duten espazioa beren eguneroko esperientzietatik”

Partaidetza Lantegiaren laburpen - agiria

2009ko urtarrilaren 16a, ostirala, eta 17a, larunbata

Iturri Kultur Etxea



Hiri Debekatuaren Mapa

**“Elorrioko emakumeek nola ikusten duten espazioa
beren eguneroko esperientzietatik”**

*Partaidetza Lantegiaren laburpen - agiria
2009ko urtarrilaren 16a, ostirala, eta 17a, larunbata
Iturri Kultur Etxea*



2009ko urtarrila

PARTAIDETZA-LANTEGIA ANTOLATU DUEN ARDURADUN TALDEA

Udal antolamendua eta zabalkundea

Maitane Iribar
Berdintasunerako Zerbitzua, Elorrioko Udala

Lantegiaren diseinua eta zuzendaritza (Gea21)

Isabel Velázquez
Josefina Olza

Monitore Taldea

Isabel Velázquez
Josefina Olza
Maiden Etxaide
Junkal Fernández

Laburpen-agiriaren edizioa

Gea21, S.L.

AURKIBIDEA:

1. SARRERA	4
2. EMAKUMEEK HIRIAN BIZI DUTEN SEGURTASUNAREN INGURUKO ZENBAIT AURREKARI	6
3. LANTEGIAREN METODOLOGIA	9
4. LANTEGIAREN EMAITZAK	13
5. HIRI DEBEKATUAREN MAPA	34
6. JARDUNALDIAREN PROGRAMA	35

1. SARRERA

Elorriko Udalaren Berdintasunerako Zerbitzuaren ardura da udalerrian emakumeen eta gizonen artean aukera-berdintasuna sustatzea, eta halaber, berdintasun hori benetakoa eta erreala izan dadila eragozten duten oztopoak gainditzea. Lehentasunezko helburuen artean, emakumeen jabetasuna hobetzea eta beren ekarpen bereziekin gizartearen aktiboki parte hartu dezatela sustatzea dago, eta era horretan, udaleko politika publikoak garatzen diren urrats eta maila guztietara berdintasunaren ikuspegia zabaltzea, hori sustatzeko eta abian jartzeko beharrezkoak diren baliabideak eskainiz.

Udalerrian garatzen ari den Emakume eta Gizonen Berdintasunerako II. Planak (2007-2009) bi ardatz estrategiko ditu: batetik, emakumeak ahaldundutzea eta gizarte nahiz politika arloan parte hartzea eta, bestetik, emakumeenganako indarkeriaren aurka borroka egitea. Hain zuzen ere, genero-berdintasun hori lortzearen landu nahi den jardura-eremuetako bat Hirigintzarena da.

Plan honetan aipatutako puntuen artetik nabarmentzekoa da, halaber, emakumeek eta gizonen hiria eta bertako eremuak erabiltzen duten moduari buruzko informazioa jasotzen dela, eta era berean, hiri-segurtasunaren gaia jorratzen dela, izan ere, gai hori kezka-iturri baita Elorriko emakumeen artean, bereziki gazteenen artean, beren mugitzeko askatasuna murriztua ikusten baitute gauez bakarrik irteteko edo argitasun gutxiko leku bakartietatik barrena ibiltzeko duten beldurragatik.

Alde horretatik, Planean aztertutako ekintzetako bat herriko emakumeen iritziz ibiltzeko erraztasun eta segurtasun gutxi eskaintzen duten tokien Mapa bat egitea da, hirigintza alorrean hiriko segurtasuna eta emakumeen mugitzeko eta ibiltzeko beharrak hobetzeko helburuz.

Hiri Debekatuaren Mapa egiteko asmoz, Elorriko Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuak dei egin zien herriko emakumeei, hiriko segurtasunari buruz hausnartu eta eztabaidatuko zuten Eztabaida Lantegi batera etor zitezen.

Ekimen hori, azkenean, Hirigintza Sailaren eta Berdintasunerako Zerbitzuaren arteko proiektu bihurtu zen, izan ere, Hiri Antolamendurako Plan Orokorren prestakuntza zela eta, Udalak abian jarri zuen herritarren partaidetza-prozesuan egindako eztabaida-taldeetako batean herritarrek eskatua zuten Hiri Debekatuaren Mapa egitea. Era horretan, eskakizun zehatz hori jaso eta aldarrikapen horretan adierazitako nahia betetzea erabaki zen, segurtasunaren ikuspegitik emakumeek hiriarri buruz duten iritzia jasotzeko eta Hiri Antolamendurako Plan Orokorren amaierako agiria beste ikuspegi eta iritzi batzuekin aberasteko.

Lantegiaren antolakuntzan Gea21ek parte hartu du, Elorriko Udalaren Berdintasunerako Zerbitzuarekin elkarlanean. Eztabaida-jardunaldi hori urtarrilaren 16ko arratsaldean, ostiralarekin, egin zen Iturri Kultur Etxean, eta larunbatean, hilak 17, jarraitu zuen hirian barrena hainbat ibilbide eginez. Jardunaldi horren helburua gogoetarako eremu bat sortzea zen, emakumeek hiriari buruzko ikuspegi desberdinak bateratu zitzaizten, beldurra edo segurtasun-ezaren sentsazioa sortzen dieten toki edo eremuak identifikatzeko eta, horietan oinarrituta, Hiri Debekatuaren Mapa prestatzeko. Bi saio horiek Lantegi honen muina osatzen dute eta horiexek jasotzen dira laburpen-agiri honetan zehatz-mehatz.

Hurrengo orrialdeetan jasotzen diren ideiek, alde horretatik, beren eguneroko ibilbide eta pasealekuetan segurtasun-eza, errespetua edo ibiltzeko zailtasunak sortzen dizkieten eremuei buruz emakumeek egindako ekarpenak jasotzen dituzte, eta bide batez, puntu horiek hobetzeko eta inguruneke segurtasuna eta hiriaren barruan segurtasun-sentimendua areagotzeko proposatutako alternatibak eta iradokizunak ere biltzen dituzte.

Orain aurkezten den ondorioen agiri horretan, Lantegian eta udalerriko kaleetan barrena egin ziren ibilbide eta txangoetan sortutako ideia eta proposamen ugariak laburbildu nahi izan dira, baina halere, ezinezkoa da orduko giroa bere aberastasun eta sormen-indar guztiarekin hemen azaltzea.

Beren ideia eta ekarpenak guztiz baliotsuak eta interesgarriak dira, herriko emakumeen artean beldurra edo segurtasun-ezaren sentsazioa sortzen duten eremu eta tokien diagnostiko gisa ez ezik, baita orain arte isilpean eta ezkutaturik egon den errealitate horri irtenbideak bilatzeko edo baita generoaren ikuspegitik hirigintza-plangintzan sakontzeko ere.

Horren bidez, eztabaida-jardunaldi horretan parte hartu zuten emakume guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu eskainitako laguntza eta erakutsitako jarrera bikainagatik, eskuzabaltasun handiz beren ideia eta esperientzia pertsonalak azaldu baitzituzten hiriaren eta bertako herritarren mesedetan, eta hori, zalantzarik gabe, lagungarri izango da udal gobernu-taldeak Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean aurreikusitako jarduerak orientatzeko eta gidatzeko, hurrengo urteetarako diseinatzen ari diren hiria hobetzeari begira.

2. EMAKUMEEK HIRIAN BIZI DUTEN SEGURTASUNAREN INGURUKO ZENBAIT AURREKARI

Segurtasunaren eta hiri-diseinuaren arteko lotura oso gutxi aztertzen eta hartzen da kontuan planeamenduan, eta arlo horretan emakumeen ahotsa ere ez da askotan entzuten, ez baitute esperientziarik eta ez tradizioz ere hirigintza bezalako gaien inguruan azterketak eta hausnarketak egiten. Horrela, eremuaren eraikuntza eta antolamendua egiterakoan itxuraz baliatu ohi den neutraltasunaren azpian, sexuen arteko desoreka handiak ezkututzen dira. Pertsona guztiei ez zaie erraza gertatzen hiriko esparru eraikia “irakurtzea” edo interpretatzea, eta are gehiago, pertsonen segurtasunarekin loturik hiri-espazioek dituzten gaitasun eta ahuleziak aztertu eta zehaztu nahi direnean. Halere, emakumeak, hainbat eratako indarkeria jasaten dutenez eta babestu edo defendatu behar izaten dutenez, eremu publikoan beren segurtasunari eragiten dioten inguruko elementuez gehiago jabetzen dira.

Eraikitako eremuen kalitatea aztertzeko eta hirigintza-soluzioak proposatzeko ebaluazio-baliabide parte-hartzaile oso eraginkorrak dira hiri-ikuskapenak edo miaketa-txangoak, betiere hiri-ingurunean pertsonen segurtasuna hobetzeko xedez.¹ Baliabide horrek kontuan hartzen du hiriko segurtasun-ezak eragin handiagoa duela emakumeengan gizonengan baino. Miaketa-txangoak emakume taldeek osatuak egon ohi dira gehienbat, baina hirigileak, arkitektoak eta udal zinegotzi talde desberdinetako ordezkariak ere joan daitezke horrelakoetara, eremu publikoetako segurtasun-baldintzei buruz eta gehien jasaten duten taldeen artean horrelakoek duten eragin handiari buruz sentsibilizatu eta kontzientziatu daitezen.

Hiri-miaketarako ibilbide hauek badute aurrekari bat, 80ko hamarraldiaren hasierakoa, Sexu Izaerako Erasoen aurkako Borroka eta Laguntzarako Asistentzia Zentroen Quebecoko Elkartearen (CALACS) ekimenez abian jarri zena, eta bertan, Kanadako eta Estatu Batuetako hainbat emakume talde kalera irten ziren 31 hiri baino gehiagotan, “GAUEZ EMAKUMEAK KALEAN BELDURRIK GABE”² lemapean, emakumeen aurkako indarkeria modu desberdinak salatzeke (sexu-erasoak, etxeko indarkeria, sexu-jazarpena...), eta bertan, libreki, erasoak jasateko beldurrik gabe eta babes beharrik gabe bizitzeko gogoia berretsi zuten.

Urte batzuk geroago, 1988an, Montreal hirian, emakume herritarren talde batek udal ordezkariengana jo zuen hiri-antolamendurako proiektuak garatzen dituztenean emakumeen errealitate berezi hori kontuan har zezaten. Ekimen honen

¹ Ikuskapen-txangoen kontzeptua Metro Action Committee on Public Violence Against Women and Children (METRAC) erakundeak garatu zuen, emakumeek espazio publikoan duten segurtasuna ebaluatzeke helburuz

² LA RUE LA NUIT FEMMES SANS PEUR, Take Back The Night lanaren Quebec-eko bertsioa, «La Seguridad de las Mujeres. De la Dependencia a la Autonomía» lanean. CAFSU. Montréal 2002.

ondorioz, Emakumeak eta Hiri Batzordea (Femmes et Ville) sortu zen hirian, eta horren lehentasuna, une horretatik aurrera, Montrealgo emakumeen segurtasuna sustatzeko helburua duten ekintzak burutzea da. Kanadako eta Europako beste hiri batzuetako ekimenetan eta emakumeen partaidetzari buruz abangoardiako ikerlariak egindako lanetan oinarrituta, Montrealgo hiriak zenbait Gidaliburu banatu zituen bertako emakume herritarrak eremu publikoez jabetzera bultzatzeko eta agintari publikoak eta profesionalak sentsibilizatzeko, hirigintza-jardueren garapenean generoaren ikuspegia txertatu zezaten.

Hortik aurrera, zenbait helburu proposatu zituzten hirian, eta emakumeen segurtasunaren gaia hainbat programa eta proiektutan barneratzeko estrategia batzuk garatu zituzten, esate baterako, Krimenaren Prebentzioarena, edo Garraio Elkartearekin (STM) elkarlanean egin zena, zenbait terminalen diseinua planifikatzen denean emakume erabiltzaileen segurtasuna kontuan har zezatela bermatzeko.

1992. urtean, “Beldurra salatzen dut” (J'accuse la peur) hitzaldiaren ondoren, Emakumeen eta Hiri Segurtasunaren aldeko Ekintza Batzordea sortu zen (CAFSU, siglak frantsesez), hainbat emakume taldek (horietatik gehienak emakumeen aurkako indarkeria jorratzen ari ziren) eta bazkide komunitario batzuek osatua, eta bertan, Montrealgo zenbait erakunde publikok ere parte hartu zuten, benetako segurtasuna hobetzeko eta hiri-ingurunean segurtasunaren sentsazioa areagotzeko.

Batzorde horrek sentsibilizazio-jarduera, ikerketa eta esku-hartze ugari burutu ditu orduz geroztik. Horien artetik nabarmentzekoa da arestian aipatu dugun STM enpresarekin elkarlanean “Bi geltoki artean” zerbitzua sortu izana, eta 2000. urtean Nazio Batuen partetik tokiko garapenaren alorrean egindako “Jarduera Onenetako” baten aitorpena jaso duena.³ Zerbitzu hori emakumeentzat bakarrik da, gaueko ordutegian bi autobus-geltokiren artean beren helmugatik hurbilen dagoen puntuan jaisteko aukera ematen diena. Montrealgo udalak zerbitzu hori sustatu zuen, “Emakumeak eta Hiriak” izeneko programaren barruan.

2000. urtean, Emakumeen Mundu Martxa zela eta, CAFSU Batzordeak eta Emakumeak eta Hiri Batzordeak hiri-diseinu seguru baten printzipioak sustatu zituzten, generoaren ikuspegitik begiratuta. Montrealeko gauzatutako ekimen horiek gero eta interes handiagoa piztu zuten nazioartean, eta hainbat informazio eta esperientzia trukatu zituzten; azkenik, Montrealeko garatutako estrategiak ezartzea ekarri zuen horrek guztiak, eta batez ere, Europa, Afrika eta Hegoaldeko Ameriketako toki ugarian hedatu ziren.

³ <http://habitat.aq.upm.es/dubai/00/bp668.html>: Generoaren ikuspegia garraio publikoan txertatzea, Montreal (Kanada).

Truke horien ekitaldirik garrantzitsuena Montrealen 2002ko maiatzean “Lokarriak eginez” izeneko Emakumeen Segurtasunari buruzko Lehen Nazioarteko Mintegia egin zenekoa dugu, eta bertan, Montrealgo hiriak Gidaliburu bat prestatu zuen ingurune seguru baten hiri-plangintza eta antolamendua egiteko xedea zuena, segurtasuna hobetearren eta hiri barruan antolamendu-politiko seguru bat erdiestearren⁴.

Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko mundu mailako Biztanleria Txosten batzuetan oinarrituta zegoen horren justifikazioa. Horietatik 48k ziotenez, emakumeen ehuneko 10etik 69ra bitartean beren bizitzako unerik batean hurbileko gizonetako baten eraso edo oldarra jasan zuten (Osasunaren Mundu Erakundea, 2002), eta indarkeria hori bai eremu publikoetan eta bai pribatuetan ere gertatzen da, eta ondorio garrantzitsuak ditu hiri-eremuaren, baliabideen eta zerbitzuen erabileran (Smaoun, 2000).

Ordur geroztik, segurtasuna hobetzeko ekimen eta jardunbide egoki ugari gauzatu dira, bai hiri handietan eta bai herri txikietan ere, oso ikuspegi desberdinetatik⁵. “Hiri seguruagoak” programak dei egin zien emakumeei, eraikin abandonatuak eta oztopoz beteriko kale itxiak identifikatu eta udal agintariei jakinarazi ziezaieten; Petrozavodsk herrian, Errusian, beste adibide bat jartzearen, “Elkarrekin hiri seguru bat eraikiz” programaren barruan, etxebizitzak eta eremu publikoak hobetzeko sortutako zenbait herritar-batzordek laguntza-ildo bat garatu zuten, indarkeriaren biktima izandako emakumeentzat babes-eremu batzuk eta larrialdiko beste zerbitzu batzuk sustatzeari begira.

Hainbat ekimenen adibide batzuk baino ez dira, baina denetan ikus dezakegu hiri seguru baten aldeko eskubidearekiko konpromisoa, eta emakumeei botere handiagoa emanez, hiriko sektore desberdinak seguruagoak izan daitezela lortu nahi da, eremu publikoaren kalitatea hobetzearekin batera.

⁴ <http://punt6.net/node/71>: Hiri bat emakumeen neurritan. Udalek genero-berdintasuna lortzearen alde betetzen duten eginkizuna.

⁵ <http://www.ciudad-derechos.org/espanol/pdf/aab.pdf>: “Hiri seguruagoak, generoa eta giza eskubideak.

3. LANTEGIAREN METODOLOGIA

Eztabaida-lantegian Elorrioko hamabi bat emakumek parte hartu zuten, eta bertan, zenbait toki edo ingurutan erasoren bat edo mehatxuren bat gertatzea edo arriskutsutzat edo ez-segurutzat jotzea ahalbidetzen duten hainbat hirigintza-elementu eta faktoreren inguruan hausnartu eta eztabaidatu zuten elkarrekin.

Lantegi hori burutuz, honako helburu hauek lortu nahi ziren:

- Udalerriko hirigintza-diseinuarekin loturik emakumeen segurtasunerako arazo nagusiak identifikatzea eta soluzio egokien bila aurrera egitea.
- Hiri-diseinu, segurtasun, hezkuntza, garraio eta beste zenbait arlotan eskumenak dituzten udal departamentuetako pertsonala sentibilizatzea, generoaren ikuspegia zeharkako gai bilakatuz.
- Une honetan prestatzen ari diren HAPOaren amaierako agiria emakumeen ekarpen eta ikuspegiekin aberastea.

Lortu nahi ziren beste helburu batzuk hauek ziren:

- Eremu publikoan aurkitzen direnean emakume askok pairatzen duten beldurraren gai hori, askotan isildua, agerian jartzea.
- Hiriko eremu desberdinak berdintasunez erabil daitezela sustatu eta legitimatzea.
- Emakume gazteenek hiriaren erabileran genero-desberdintasunak identifikatu ditzaten eta berdintasunezko eremuak eraiki beharraz jabetu daitezen lan egitea.
- Emakumeen artean hirigintza bezalako gai batzuei buruzko interesa piztea, eta eremu publikoaren eraketak eta diseinuak nola eragiten dien ohartaraztea.
- Emakumeek hiri-partaidetzaren ariketa honekin ongi pasatzeko eta hiriko gaitan esku hartzera bultzatzeko prozesu erakargarri eta didaktiko bat proposatzea.
- Talde-lanaren bitartez, emakume aktiboen talde bat sustatzea, etorkizunean ekimen kolektibo gehiagoren abiapuntu izan dadin.

Eztabaida Lantegi hori Iturri Kultur Etxean egin zen 2009ko urtarrilaren 16ko arratsaldean, ostiralarekin, eta hurrengo eguneko saioan jarraitu zuten. Jardunaldiaren inaugurazio-ekitaldiaren hasieran ongietorria egin zuen Berdintasunerako Zerbitzuko arduradunak, eta Berdintasunerako Zinegotzi andrearen izenean, bere testuinguruan kokatu zuen jardunaldia; berak eman zion amaiera, halaber, jardunaldiari. Bi pertsona horiek taldearen eztabaidetan parte hartu zuten, beren ideiak emanez eta taldeak emandakoak babestuz, eta bide batez, proiektu honen aldeko interesa eta konpromisoa agertu zuten.

Jarraian, sarrera-hitzaldi bat egin zuen Gea21 enpresak, eta horren helburua lantegiko gaiaren aldeko interesa piztea eta eztabaidaren barruan hiriko segurtasunarekin eta arriskuekin loturiko hainbat alderdi eta kontzeptu txertatzea eta emakumeek horren diseinuan eta eraikuntzan esku hartu beharra dutela proposatzea zen, beren esperientziak, bizipenak eta hiri-inguruneari buruz duten ezagutza azalduz. Gero, talde-lanaren barruan jarraitu beharreko metodologiari buruzko azalpenak eman zituzten.

Lehen saioa: Hiriari buruzko analisia segurtasunaren ikuspegitik

Aurkezpeneko saioaren ondoren, talde-laneko lehen saioa egin zuten. Maparen prestakuntza bi lan-taldek egin zuten paraleloki, eta hasteko, hiriko segurtasunari buruzko diagnostiko bat egin zuten eta, gero, beren ondorioak bateratzen ahalegindu ziren. Taldeekin egindako lanaren azken emaitza, hain zuzen, hiriko parte-hartzaileek “debekatutzat” identifikatutako leku eta eremuak edo beldurra edo segurtasun-ezaren sententzioa sortzen zietenak plano baten gainean kokatzea izan zen.

Jarduera hori burutzeko, taldeak osatu eta gero, parte-hartzaile bakoitzari hiru galderari erantzuteko eskatu zitzaion:

- Arriskutsuak iruditzen zaizkizun, beldurra sortzen dizuten edo bertatik urrunarazten zaituzten hiriko eremuak aipatu eta deskribatu.
- Azaldu zergatik iruditzen zaizkizun leku horiek babesgabeak edo arriskutsuak, eta
- Zer jarduera egiten dira inguru horietan, zer egiten da bertan.

Jarraian, pertsona bakoitzak identifikatu zituen eremu gatazkatsuak azaldu zizkion bere taldeari, eta deskribatutako toki horiek hiriaren plano baten gainean kokatu zituzten gero taldean. Talde-lana suspertzearen ardura zuten monitoreek kartel batean jaso zituzten talde bakoitzak egindako ekarpenak. Hiriko segurtasunari buruzko diagnostikoa egin eta plana bete ondoren, bi taldeek beren ondorioak bateratu zituzten saioaren amaieran. Horietako bakoitzeko bozeramaile boluntario batek azaldu zizkien emaitzak gainerakoei.

Bigarren saioa: Azterketarako eta ikuskapenerako hiri-txango eta ibilbideak.

Hurrengo egunean goizean, urtarrilak 17, larunbata, hiriko kaleetan ibilbide eta txango batzuk egitea proposatu zuten, parte-hartzaileek segurtasunaren ikuspegitik “puntu beltz” edo eremu kritikotzat identifikatu zituzten leku eta eremuetan barrena.

Landa-lan horren barruan jarduera hauek zeuden:

- Aukeratutako toki horiek berrestea, segurtasunean edo segurtasun-ezaren sentazioan eragina edo zeresana duten aldagaiak kontuan izanik.
- Argazki eta kartografia bidezko erreportajeak, kezka edo beldurra eragiten duten eremuen benetako egoera grafikoki egiaztatzeko.
- Hobekuntza-proposamenak edo neurri zuzentzaileak prestatzea atzemandako arazoen arabera.

Miaketa-prozesu horretan honako gai hauei buruzko informazioa biltzen ahalegindu ziren:

- Puntu beltzen ezaugarri nagusiak deskribatzea eta horien kokapena finkatzea.
- Hiri-inguruneak eta jarduera motak.
- Eremu eta kaleetako kalitatea eta mantentze-lanak.
- Ikusgarritasuna eta argitasuna.
- Auzotarren jarduerak eta gizarte-kontrol informalerako aukerak.
- Eremu publikoarekin duen lotura eta identifikazioa.

Hau da, hiriko eremu desberdinak segurtasunez erabil daitezela errazteko eta horrelakoetan delitu-ekintzak edo jokabide erasokorrak ez gertatzeko edo gutxitzeko funtsezkoak diren oinarritzko gai batzuk⁶.

Puntu beltzen analisia eta ebaluazioa egiteko erabilitako metodo horrek emakumeen ikuspegitik ingurune seguru bat izatearekin loturiko sei oinarritzko irizpide hartu zituen oinarritzat, eta horiek guztiak "Emakumeek hirian bizi duten segurtasunari buruzko inkesta-gida"⁷ eskuliburuaren frantsesezko bertsioan jasoak daude, eta horien bidez, eremu edo auzo desberdinetako, eremu publikoetako, etxebizitza-multzoen eremu komunetako, etxebizitzetako, garraio-zerbitzuetako... segurtasuna neurtzen da hiri-diseinuaren ikuspegitik.

Emakumeen ikuspegitik, hiri-ingurune bat segurua izango da, baldin eta:

- Non zauden eta nora zoazen jakin badezakezu
- Zuk ikus badezakezu eta besteek zu ikus bazaitzakete

⁶ <http://www.ub.es/geocrit/-xcol/413.htm> "Segurtasuna hirietan: geoprebenzioaren ikuspegi berria". Ikuspegi horrek, diziplina ugariako ikuspegiaren bitartez, segurtasunaren kontzeptua lurraldearekin uztartzen du. Krimenaren Prebenzioa Ingurumen Diseinuaren Bitartez, CPTED metodologia (ingelesezko siglen arabera), Clarence Ray Jeffery kriminologo estatubatuarrek 70ko hamarraldian garatutako metodologia bat da, eta bere ustez, hiri-ingurune fisiko eta sozialak aukerak sor ditzake delitu-ekintzak murrizteko eta hiri-indarkeria eragozteko, zenbait parametro aldatuz. Metodologia horrek elkarrekin loturiko lehen mailako bost kontzeptu ditu, eta indarkeria-ekintzak egiteko aukerak eta delituarekiko beldurra murriztea dute helburu. Erabiltzen dituen lurralde-kontzeptuak hauek dira: sarrera-kontrola, zaintza, lurralde-errefortzuak, espazio publikoetako mantentze-lanak eta parte-hartze komunitarioa, herritarrek segurtasun-politika publikoen protagonista garrantzitsu bilakatuz.

⁷ Pour la sécurité des Montrealaes. Guide d'enquête sur la sécurité des femmes en ville. Ville de Montréal, Service des loisirs, des parcs et du développement communautaire. Module du développement communautaire. Montréal, novembre 1993. ISBN 2-89417-401-2

- Zuk entzun badezakezu eta besteek zuri entzun badiezazukete
- Ihes egin eta laguntza lor badezakezu
- Ingurune abegitsu eta garbi batean bizi bazaitezke
- Talde baten barruan jardun badezakezu

Gai hauek guztiak *bertatik bertara* aztertu eta ebaluatu beharko lituzke emakumeen taldeak, baina halere, argitu beharra dago urrats horien hurrenkera ez zela ordena zorrotz bati jarraiki bete, baizik eta hiri-ingurune zehatz bakoitzera egokitzen ahalegindu ziren. Komeni da azpimarratzea, halaber, jarduera horri eskainitako denborak ez zuela proposatutako gai bakoitza zehatz-mehatz erregistratzeko aukerarik eman, nahiz emakumeek ingurune desberdinei buruz egindako iruzkinek hiriko eremuen egoera orokorrari buruzko ideia argi samar bat egitea ahalbidetzen diguten; hau da, eguneroko bizitzako jarduerak demokratikoki garatzeko hiriak dituen eragozpen eta gaitasunen diagnostiko orokor bat egin dezakegu, eta bide batez, ikus dezakegu nola sortu litekeen segurtasuna edo segurtasunaren sentrazioa hirigintza mailako diseinu eta plangintzaren bitartez.

Ikuskapen-prozesurako landa-lana emakumeen taldeak burutu zuen, proiektuaren ardura daramaten bi pertsonen gainbegiradapean, eta bertan, arestian aipatutako gai horiek aztertu zituzten.

Eztabaida Lantegiaren emaitzak nola herriko kaleetan barrena egindako ibilbide eta txangoetako ekarpenak aurkezten dira jarraian, zertxobait antolatuak eta egituratuak, errazago ulertu ahal izateko.

Garrantzitsua da, halaber, azpimarratzea prozesuaren amaieran emakumeen talde horrek begi onez ikusi zuela egindako lana eta konbentzituta agertu zen bai beren ekarpenak eta bai beren hobekuntza-proposamenak ere lagungarri izango direla etorkizuneko hirigintza-jarduerak eta hiri-segurtasunarekin loturiko politika desberdinak egoki bideratzeko.

4. LANTEGIAREN EMAITZAK

Kapitulu honetan bi emakume talde horiek Elorrioko “puntu beltzei” buruz egin izan dituzten ekarpenak biltzen dira. Ondorioak bateratzean egiaztatu zenez, kointzidentzia handia dago taldeen artean, eta emaitzei dagokienez berriz, bat zetozen ia guztiak, udalerrian errepikatzen diren egoera ezagunei buruzkoak baitziren denak.



Iritzirik zabalduena da herrian segurtasuna ez dela arazo larriegia, baina badira zenbait ibilbide edo puntu kontu handiz ibili beharrekoak, eta diseinuan, mantentze-lanetan edo bertan dauden eremu eta jarduera desberdinen kudeaketan hobekuntzak eginez konpondu beharko lirateke.



Emakumeek nabarmendutako puntuak sarritan leku urrunduekin eta bakartiekin loturik ageri dira, argitasun gutxi dute eta hiritartu gabe daude, edo bestela, auzoak erdialdearekin lotzen dituzten ibilbideetan kokatuak daude, nahiz hiriaren erdialdean ere topa ditzakegun horrelako inguruneak. Jende gutxi ibiltzen den toki ilun, isil eta ordu jakin batzuetan hutsik aurkitzen diren beste puntu batzuk ere azpimarratu zituzten, esate baterako, zenbait aparkaleku eta lantokiak (industrialdea), eguneko une batzuetan jarduera ugari baina beste une batzuetan bat ere ez dutenak. Pasealeku eta aisialdi-eremuetako parke eta ibaiaren ertzeko tarte batzuk toki beldurgarritzat edo beldurra sortzen duten lekutzat jo izan dituzte.

Aipatu izan dituzten beste puntu deseroso batzuk kale eta kale-zulo estuak, zokoak eta kantoiak dira, irispide zaileko tokiak edo oztopo arkitektonikoak dituztenak eta ibilbide bakartiak, herritarrak ibiltzen ez direnak, eta beste pertsona batzuek naturalki ikusi edo kontrolatzeko aukerarik ematen ez dutenak. Emakumeak gaueko orduetan, eta beste inoren laguntzarekin ez bada, bertatik igaroko ez diren tokiak dira gehienak.

Oro har, ez dituzte arazo handiko tokitzat ikusten, baina deserosoak gertatzen zaizkie eta, batez ere, nahi den tokitik tutoretzarik edo babesik gabe igarotzeko mugimendu-askatasuna mugatzen diete. Gainera, arazo gehiago ikusten dizkiote horrelako tokiei eguneroko ekipamenduetara (ikastetxera, institutura, eskolaz kanpoko jardueretara, kirol instalazioetara, kultur etxera, erosketak egitera...) edo herri-erdialdetik urrun dauden auzo eta etxebizitza multzoetara joan behar dutenean.

Era berean, beste zenbait gai ere nabarmendu zituzten emakumeek, hala nola eremu publiko eta hirigintza-elementu batzuen hondamen-egoera (parkeak, zubiak, eraikin abandonatuak eta hutsak), edota hiri-ingurune jakin batzuetan hiri-altzaririk ez izatea edo nahikorik ez izatea (auzoetan eta hiri-aldirietako ekipamenduetan), segurtasun-ezaren eragile direlako edo arrisku-sentsazioa eragiten dutelako.

Azken batean, udalerriko puntu beltzen mapa osatzen duten elementuak dira horiek guztiak, eta horiek ikusita, esan dezakegu oraindik badirela “espazio debekatu” batzuk Elorrioko emakumeentzat, eta beharrezkoa dela emakumeen behar eta eskakizunak kontuan hartuko dituzten hirigintza-hobekuntza batzuk proposatzea.

Parte-hartzaileek nabarmendutako eremu eta puntu beltzen deskribapena

Jarraian, emakumeak deseroso edo segurtasunik gabeko nolabaiteko sentazioarekin aurkitu zirela aipatu zituzten toki eta ibilbide batzuk deskribatzen dira.

Leku horiek hauek dira:

- I. **Urrun dauden auzo edo etxebizitza-multzoak, hiri-erdialdetik bereiziak, eta gutxi hiritartuta dauden industrialdeak**, hormen artetik doazen bideetatik, fabriken albotik, herritarrik ia ibiltzen ez den tokietatik eta eguneko ordu batzuetan inor ez dabilen lekuetatik barrena, zoladura



egoera txarrean dutelako, espaloirik ez dutelako, argitasun gutxi dagoelako edo mantentze-lan nahikorik egiten ez delako.

Ezaugarri hauek dituzte Montorra-Buzkantz-Ganondo-Montorroste auzoetara doazen bideak **(1)**, Buenos Aires eraikinera doazenek **(2)**, San Anton-Urkizuaran auzora doan bideak **(3)** edo San Fausto eta San Pio auzoetara doazenek **(3a)**.



Buenos Aires etheen eraikinera doan bideak **(2)** argitasun gutxi du, orain dela gutxi (urte bat edo bi urte) haren ondoan etxebizitza batzuk eraiki zituzten arte isolatuta egon baitzen, eta bertara joateko bide bakarra errepideari eta zuhaizti

bati segituz (San Josetik barrena) doana da, nahiz eta zentzu gehiago izango lukeen urbanizazio berritik barrena bide bat egiteak.



San Antonen LINCE fabrikatik eta aparkalekutik barrena doan bidea, etxebizitza multzoarekin batera erabiltzen dena, dugu arazo gehien sortzen duena. Eraikinaren fatxadak nola aparkalekuak oso itxura utzia dute. Arrasatera doan errepideak bitan banatzen ditu, tarte batzuetan ez dago espaloirik eta zebrabidea arriskutsu samarra da, fabrika edo enpresa desberdinetara joateko ibilgailuek jira egiten duten tokian.



Argitasun gutxi dago eta errepidea argitzen du batez ere. Fabriken artean dauden kanto asko desatseginak dira, beldurra sortzen dute eta, hedabide batean agertu zenez, horietako batean gertakari bat izan zen, orain urte batzuk, herriko gazte baten heriotzarekin lotua.

Betsaide – Iguria industrialdeak, Goietako pare horretan **(4)**, eta errepidea hiriaren erdialdetik igarotzeak (Hego Saihesbidea) trafiko ugari sortzen du egunero, eta zebrabide gutxi edo bat ere ez dago tarte luzeetan.



Industrialde osoa bezala, gauez edo ordu txikietan ia inor ez dabilen ingurua da. Arriskutsutzat ikusten dute edo beldurra sortzen du, gaueko txandara edo oso goiz lanean hasi behar duten langileentzat batez ere.



Industrialdea, era berean, Institutura edo Haur Hezkuntzako ikastetxera doazen neska-mutilentzako igarobidea da, jarraian ikusiko dugun moduan.

San Pio eta San Fausto artean **(3a)** espaloiak oso estuak dira, batez ere hasieran. Autobus-geltokiak (Bizkaibus) gutxi dira eta herritik oso urrun daude gehienak. Geltoki honen ondoan badago beste kantoi arriskutsu bat, garaje-sarbidera doana. Kantoi hau oinezkoentzat bakarrik da, oso estua da eta beste auzo batera doa.



- II. **Hezkuntza, kultura eta kirol erabilerarako ekipamendu edo eremuetara joateko**, egokituta ez dauden bideak eta bidezidorrak erabiliz, ikusmen-kontrolrik ez duten eraikinetatik barrena igaro beharra dago, eta halako bideak arriskutsutzat jotzen dira, gehienetan gaueko jardueretan edo negu arratsaldetan erabili behar direlako (eskolaz kanpoko jarduerak, klase boluntarioak...).

Sarbide horietako askotan, arazoa ikastetxeko bide-segurtasunean topatzen dugu, batik bat ikastetxe publikora doazen bideetan, espaloi estuak eta trafikoa ugari dutelako, baita institutuen eremuan edo eskolaz kanpoko jarduerak egiten diren horretan, behar hainbat definituta eta antolatuta ez dauden eremu zabalak direlako, arestian aipatu diren kale batzuetan, eta ongi antolatuta ez egoteak deserosotasun eta arriskuaren sentsazioa areagotzen du emakumeen artean.



Saihesbidetik hurbilena Elorrioko Ikastetxe Publikoa **(5)** da, Haur Hezkuntzakoa, eta horren atzetik, alde handi samarrarekin, errugbi-zelaiko instalazioak eta OHO eta DBHko hezkuntza-zentroa datoz.



Partaidetzaren lantegian gehien nabarmendu zuten puntu beltza, aho batez, Eleizaldeko Futbol Zelaira zuzen-zuzenean doan bidea da **(6)**, San Joan bidetik barrena, bide horrek ez duelako espaloirik eta oso estua eta iluna delako. Arrasateko errepidetik barrena doan alternatiba ere bide estua da, espaloirik eta oinezkoentzako igarobiderik ez duelako, argitasun gutxi duelak, hormen artetik

doalako eta hormetan hainbat zoko eta ezkutaleku dituelako, beldurra eragiten dutenak. Bide honen amaierako zatian, errepidearen parean, etxebizitza bat eraikitzen ari dira, lantegi bat itxita eta erdi abandonatua dago, argitasun gutxi du, eta horrek guztiak itxura deserosoa eta desatsegina ematen dio.

Lourdes inguruko instalazioetara doazen bideak ere bai (Lourdesko Ama ikastetxea) **(9)**. Lourdes aldera doan Bedoiako Txaradi-bidexka asko erabiltzen dute ikasleek, baina ez dago behar bezala egokitua bertatik igarotzeko eta ibiltzeko. Ikastetxera doan bidea, gainera, isolatu samarra dago.

Musika-eskolara doazen bideak estuak dira, ez dago fatxadarik eta argitasuna urria da. Betsaide-Goietea Haur Eskolaren ingurura doan atzealdeko bidea ere berdin.

Aldatzekua Hirugarren Adinekoentzako Etxera doazen bideak ez daude behar bezala egokituta, eta tarte batzuetan oso zaila da ibiltzea, batez ere mugikortasun-arazoak dituzten pertsonentzat, barandarik gabe daudelako eta argitasun publiko gutxi dutelako.



- III. Mendi-mazelean gora erdialdea San Rokerekin lotzen duten **kale edo kantoietan (7)** ikusmen-kontrol urria dago, hurbileko etxeen fatxadetan ez dagoelako leihorik eta, batik bat, horma ilun eta bakartien artetik doazelako. Kasu askotan ez da mantentze-lanik egiten (faroletako bonbillak erreta daude). Halere, beharrezkoak dira bertako biztanleentzat eta sarritan erabiltzen dituzte.

Esate baterako, Arriola Musikaria kale-kantoia edo Berriotxoa Elizbururekin lotzen duten kantoiak. Hain zuzen ere, Arriola Musikaritik Ikastetxera doan bidea **(7)** “beldurraren kantoia” izendatu zuten; aldapa handia du, baita zenbait eskailera

eta zoko ere, ilunpean kezka eragiten dutenak, eta kantoï horren horma baten atzean Komentuaren baratzea dago.

Baita Elizburu-San Roke kantoia ere, Kultur Etxearen atzealdean, edo San Roke-Iturri-Kirol Etxea. Iturritik Gernikako Arbola Plazara eta parkingera doan kantoiak, gainera, ez du ibilerraztasunik eskaintzen pertsona minusbaliatuentzat, zenbait tartetan barandarik gabe dagoelako, eta denboraren erdian farolak itzalita daudelako.



- IV. **Ibaiaren inguruan jende gutxi ibiltzen den bazter eta eremu batzuk** badaude, behar bezala egokitu gabeak, eta erdialdean egon arren, beldur edo kezka sentsazioa eragiten dute.

Adibide modura Posta Bulegoaren atzean San Joan aldera doan bidea aipatu daiteke, Azpikoerrotatik barrena Tintilin zubia zeharkatuz **(A)**. Erdialdean aurkitzen da, baina zoko asko ditu, etxeen atzeko aldeetatik doalako, argitasun gutxi du, erdialdean egon arren, eta oso erabilia da igarobide modura.



Ongi egokituta egonez gero gehiago eta hobeto erabilia egongo litzatekeen beste eremu bat asteko azoka txikiaren plazako edo Nizeto Urkizu aparkalekuko parke txikia da **(B)**, eta ibairaino iristen denez, eta zenbait tartetan babesik ez duenez, ezinezkoa da, adibidez, haur-parke gisa erabiltzea, berdegune polit eta eder hau topaketarako eta egonaldirako eremu gisa erabiltzea zailduz.

Beste adibide bat Labakua Zubiaren ingurua izango litzateke **(C)** edo San Fausto eremua, oso espaloi estuak daudelako edo errepidea eta gasolindegia okupatutako ingurua bertan sartzen direlako.

Kantoi itxi batzuk ere badaude, horien ondoko kaleetan kezka eragiten dutenak, esate baterako, Elizburu kalea zeharkatzen dutenak **(D)**.



Domingo de Lariz **(E)** eta Esteibarlanda kaleen artean tarte bat oso ilun dago. Ibaiaren ondotik doan bidean ez dago argitasun handirik, autobus-geltokitik Esteibarlanda ingurura joateko laburbide gisa erabili arren. Gurutzondo-Ondo Landan, Gurutzondo Zelaia Berriz alderantz, badago parke bat, eta zenbait diseinu-hobekuntza egin litezke bertan, toki ilunenetatik barrena joan beharrik ez izateko.

Eroskiren Zentralaren inguruetan (Eroski - San Fausto) **(F)** zebrabide estu eta argitasun gutxiko bat besterik ez dago, nahikoa arriskutsua bide horretatik autoak ibiltzen diren abiaduragatik. Farolek errepidea argitzen dute batez ere, eta ez horrenbeste espaloia; hain zuzen ere, zuhaitzia dela eta, espaloi hori ilunpean geratzen da, batik bat oinez edo paseatzen doanarentzat.

V. **Auzo eta baserri edo landa-guneetara doazen bideak** Elorriko erdialdetik bi kilometrotara kokatuak.

Ezaugarri hauek izango lituzkete, esate baterako, Iguria, Araunas, Gastaena, San Lorentzo, Lekeriketa edo Gazetara doazen irispideek. Kasu batzuetan, irispide

horietan espaloi xume bat egiteak dezente hobetuko luke ibilbide horietako segurtasuna.

Beste adibide bat Bedoiako Txaradira doan bidea da **(8)**, Buzkantzetik Zenita aldera. Hiritartu gabeko tarte bat da, aldapa eta malda handiak dituena, argitasun gutxi du eta ez dago behar bezala egokitua.

Montorratik Txaradira doan bide horretan bada zuhaitzi txiki bat, hesiz inguratua, gauez beldurra eta arriskuaren sentsazioa eragiten duena.



Montorratik Buzkantz aldera bada beste bide-zati estu bat, ibilgailuentzat bi noranzkoak dituena eta oinezkoentzako irispiderik ez duena.



Buzkantz kalean, “Opuseko Etxearen” aurrean, badago beste “kale-zulo beldurgarri” bat, oso estua, hormez inguratua eta zenbait baratzen artetik doana.



Ikuskapen-lan horiek egin ondoren, zenbait proposamen eta neurri zuzentzaile aurkeztu zituzten emakumeek, atzemandako puntu arriskutsu horiek hobetzeko xedea duten zenbait hirigintza-jarduera eta kudeaketa-lan egiteari begira.

Plan Orokorrean edo hiri-diseinurako eta kudeaketarako beste prozesu batzuetan txertatu beharreko proposamenak

Apartatu honetan zenbait proposamen eta neurri praktiko proposatzen dira atzemandako puntu beltz horiek hobetzeko eta hiri-diseinu seguruagoak erdiesteko, eta halaber, etorkizuneko HAPOean garatu beharreko esku-hartzeak gidatzeko, betiere berdintasunezkoagoa izango den hiri bat lortzeko xedez.

Egindako hiri-txango eta ibilbideetan identifikatutako puntu beltzak sailkatzeko erabili diren lau apartatu nagusien arabera antolatu dira hobekuntza-proposamen horiek.

1. Auzo edo etxebizitza-inguru barreiatuak

Inguru utziak, baldintza egokiak betetzen ez dituzten kaleak, dela ilunak edo argitasun gutxikoak direlako, dela oztopo arkitektoniko gaindiezinak, zokoak edo puntuitsuak dituztelako, dela horietan trafiko ugari dagoelako, dela espaloirik ez dutelako, eta abar, desatseginak bihurtzen dira azkenean, eta jendeak, emakumeek batez ere, horietatik barrena ibiltzeari, egoteari eta erabiltzeari uzten diote, eta beraz, gizarte-harremanak eta halabeharrezko topaketak gutxitzen dira, eta azkenean, leku babesgabeak eta mortuak bihurtzen dira zenbait unetan, batez ere gauez. Amaierarik gabeko gurgil zoroa da, zeren eta zenbat eta jende gutxiago ibili, gero eta kontrol sozial gutxiago izango da bizilagunen edo erabiltzaileen aldetik, eta gero eta toki arriskutsuagoak bilakatzen dira, eta azkenean, jendea ez da joaten, azkar igarotzen da edo joateari uzten dio, horietan ibiltzeak edo bakarrik joateak izua edo beldurraren sentazioa sortzen dielako.



Herri barruko etxe-multzotik urrunduta dauden inguruetara iristeko baldintzak eta segurtasun-baldintzak aztertzea izango litzateke helburua, baita hiri-eraberrikuntzako jarduera batzuen bidez eta Hiri Antolamendurako Plan Orokor berriko proposamenekin batera bizi-kalitatearen alorrean zenbait hobekuntza gauzatzea.

Ingurune atsegin eta gustagarriak sortzen lagundu dezaketen hiri-diseinuko elementu ugari topa ditzakegu, segurtasun-sentsazioa areagotuko luketenak. Esate baterako, hobekuntzak proposatu litezke hiri-kalitatean, kalitateko arkitektura-elementuak txertatuz, kaleen tratamendua eginez eta zoladura jarritz, espaloiak zabalduz, argiteria egokia, hiri-altzariak, zuhaitzak eta landareak jarritz, trafikoa lasaituz eta abar, hiri-ingurune desberdinen irudi orokorra eraldatuz eta, modu horretan, herritarrak horiek erabiltzera bultzatuz eta hiri banandu, barreiatu edo zatikatu batek sortzen duen deserosotasun eta deskokapen sentsazioa gutxituz.



Horrek esan nahi du diseinatzeko orduan kontuan hartu behar direla hiri-ingurune eta giro desberdinetan egiten diren jarduerak eta ordutegiak (industriak, ikastetxeak, dendak, kultur jarduerak...), baina baita erabiltzaile mota desberdinak ere (langileak, ikasleak, neska-mutilak, adineko pertsonak...) eta soluzioak aldagai eta ezaugarri horien arabera egokitu.



Eguneroko ekipamenduetara oinez joateko aukera ematen duten egiturak diseinatu nahi baldin badira, joan-etorriak ibilgailu motordunen bidez egiteko pentsatuak izan diren hiri-egiturek eskaintako bizimodutik oso desberdina den bat egin beharko dugu.

Esku-hartzeen helburua, beraz, ingurune desberdinen kalitatea areagotzea izango da, kanpoaldeko auzoetan hobekuntzak proposatuz, denek bizitza propioa eta gutxieneko oinarritzko zerbitzuak izan ditzaten, erdialdeak duen erakarpen-indarra nolabait orekatuz. Ingurune horietan egiten diren jarduera desberdinak bizilagunen jarduerekin modu antolatu batean uztartzea eta bateratzea da helburua, betiere horien erosotasuna, erabilgarritasuna, ibilerraztasuna eta bizitasuna kontuan izanik, horiek guztiak erakargarriak eta erabilgarriak izan daitezen.



Hau da, erabilerak ugaritzea, eremu publikoan ahalik eta jarduerarik handiena sustatuz, eta, halaber, bizilagunen artean kontrola berez sor dadila bultzatzea, hiri-eremu seguruagoak erdiesteko.

Bereziki gaizki kokatutako tokietara joateko eta horiekin komunikatzeko soluzio jakin batzuk ere aztertu litezke, esate baterako, Buenos Aireseko eraikina, Goietako auzotik barrena irispide zibilizatua egiteko aukera eskaintzen baitu.



Beste aukera bat eremu sentikor horiek arlo askotako jarduerekin konbinatzea da (dendak, tabernak, jatetxeak, autobus-geltokiak, askaldegia eta haurrentzako

jolastokiak alboko pinudian, edo horren aldamenean, besteak beste), jendea ordu desberdinetan kalean mantenduko duen giro bizi bat sortzeko eta batez ere emakumeak nahi duten tokitik ibili eta joan daitezela errazteko, beldurrik sentitu gabe eta beste pertsona batzuen beharrik izan gabe.

2. Ekipamenduetara eta ikastetxeetara joatea

Hirian segurtasunik ez izateko arrazoiak asko dira eta elkarrekin lotuak daude denak. Ingurune fisikoan agertzen dira, ia beti eremu publiko irekietan: parkean, kalean, plazan, baina baita eremu pribatuetan ere (eraikin eta etxebizitzetan), edota garraioetan eta geltokietan. Hiriaren testuinguruan, segurtasun-eza edo segurtasun-ezaren sentsazioa kudeaketa desegoki baten emaitza izan daiteke, eta horren ondorioz, erabiltzaile mota guztientzat egokiak ez diren eta egokituta ez dauden eremu publikoak egon daitezke (utzikeria eta abandonua, iristeko zailtasunak, elkarrekintzarako eragozpenak, hiriaren eta gizartearen sakabanaketa...), edo baita oinarritzko zerbitzu eta instalazioen gabeziaren ondorio ere (argiteria, hiri-altzariak, informazio-guneak, telefono-kabinak, autobus-geltokiak...). Horrek esan nahi du hiri-segurtasunak zerikusia duela bai diseinu fisikoarekin eta bai ingurumenarekin ere, baina baita egoera sozialekin ere.

Kasu honetan, oinarritzko ekipamenduetara baldintza egokietan joateko dauden arazo nabarmenak konpontzea izango litzateke helburua, hala nola Ikastetxeetara, Futbol Zelaira, Zaharren Egoitzara edo Kultur Etxera, besteak beste, esaterako hiri-diseinurako proiektu orokor bat prestatuz, ikastetxe-ingurura doazen bideak antolatu eta egokitzeko eta oztopo arkitektonikoak ezabatzeko, betiere minusbaliotasuna eta mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonengan pentsatuz.



Ikasleekin loturiko beste hobekuntza-alternatiba batzuk haurrentzako jolas-eremuen eta eguneroko topaketa-guneen inguruan diseinu-proiektuak edo azterketak egitea izango litzateke, esaterako, ikastetxeetan neska-mutilak jasotzeko tokiena. Ikastetxeen Erabilerraztasun Plan bat ere egin liteke,

ikasleentzat seguruak diren oinezko bideen diseinua jasoz, herritarren partaidetzaren bidez babestuta edo osatuta, mugikortasun eta ibilerraztasunari buruzko eztabaidari ekin ahal izateko, izan ere, gai horrek interes handia piztu zuen HAPOaren partaidetza-prozesuan.



Oinezkoen eta ibilgailuen arteko oreka bilatzeak eremu publikoa berraztertzea dakar berarekin. Orain arte, trafikoaren arriskua inolako eztabaidarik gabe onartu du gizarteak, hirian ibilgailuen trafikoa nagusi izan zedila baimenduz, eta zenbait kolektiboren autonomia eta mugimendurako askatasuna neurritz gain mugatuz, esaterako, neska-mutilena, adineko pertsonena eta minusbaliotasuna dutenena. Horregatik, garrantzitsua da hirian barrena doazen trafiko askoko bideen egungo hierarkia berraztertzea horiei dagokien bide azkarren tratamendua emanaz, ahal den neurrian pasaerako hiriko trafikoa eta bizilagunen eta erabiltzaile desberdinen nahitaezko joan-etorriak bereiziz, beren eguneroko bizitzan ondorio larriegirik izan ez dezaten.



HAPOaren jardueretan segurtasunaren ikuspegi zabal bat jaso beharra dago, auzo seguruak erdietsi beharra kontuan izanik, baina ez bertakoentzat edo kolektibo

jakin batzuentzat bakarrik; aitzitik, behar hori egoera eta adin guztietara zabaldu beharko litzateke. Alde horretatik, automobilarik lehentasuna kendu behar zaio, eremu publikoan segurtasun-eza eragiten duen elementu garrantzitsuenetakoa delako.



Beste elementu batzuk, hala nola garajeak, igogailuak, arkupeak eta bebarru ilun eta oztopodunak (zutabeak, zokoak, hesiak...), edota eskailerak, toki itxiak eta estankoak, eremu pribatuek hain berezkoa duten segurtasun-ezaren iturri dira. Etxebizitza-blokeen edo eraikinen diseinuak, eremu komunetak eta igarobideenak ere segurtasuna sortzen lagun dezakete, eta halakoetan oso garrantzitsua izan ohi da beste pertsona batzuen presentzia, ikusteko eta ikusia izateko aukera izatea, larrialdi batean entzuna izatekoa, edo “halabeharrezko” ikusle batek delitu-ekintza baten aurrean esku hartu ahal izatea.

Sarritan, etxebizitza askotako sarbideetan, batez ere eremu komunak dituzten blokeenetan, ibilbide zailak egin behar izaten dira, eta ez da garbi egoten non dagoen bebarrua edo nola iritsi eskaileretara edo eraikinera sartzeko edo irteteko atera, baita espazioa irakurtzeko aukera izatea ere, hau da, non zauden eta norantz zoazen, funtsezkoa izan ohi da zauden tokiaz jabetzeko eta seguru sentitzeko. Horregatik, eremu pribatuen diseinuan alderdi horiek zaintzea funtsezkoa da segurtasuna eta segurtasun-sentsazioa sortzeko.

Eremu honetako diseinu-soluzioak, esate baterako, etxebizitza publiko nahiz pribatuen sustapenerako lehiaketa publikoen baldintza teknikoen artean sar litezke, ikusgarritasuna, gardentasuna, klartasuna, irisgarritasuna, argitasuna eta beste irizpide batzuk eskatuz edozein eratako eraikin berrietan.

3. Zehar-komunikazioko kaleak eta kantoiak

Erdialdean dauden eta era askotako erabiltzaileek etengabe erabiltzen dituzten hainbat bideren utzikieriazko sentsazioa hiri-diseinuaren eta mantentze-lan xehakatuaren bidez konpondu beharko litzateke. Gehienetan oso laburrak eta

erdialdean kokatuak dauden bide-tarte horietan segurtasunaren sentsazioa eta ikusmen-kontrola hobetu dezaketen diseinu-soluzioak badaude. Egiten diren jarduerak, ahal duten neurrian, eragotzi egin behar dute zokoak, hormak eta argitasun gutxiko kale-zuloak egotea, eta lehentasuna eman behar diote etxebizitza-eraikinen atzealdeko fatxadetan eta eraikinen beste eremu fisiko batzuetan (argi-patioak, lorategiak, atzealdeko patioak) zenbait elementu txertatzeari, hala nola leihoak, etxebizitzaren edo egoitzaren ondoko inguruetan bizilagunek zaindu eta kontrolatu ahal izatea errazteko.

Zenbait tokitan eta kale jakin batzuetan premien ugaritasuna begi-bistakoa da eta irisgarritasun-baldintzak ere aldatu egiten dira toki batetik bestera. Premia horiek hainbat zailtasun dituzte eta diseinu-ahalegin garrantzitsuak eskatzen dituzte, eta beraz, horietako bakoitzaren xehetasun eta ezaugarrietara egokitu beharko dute soluzioek, horietan ibiltzen diren erabiltzaile mota desberdinak kontuan izanik.



Kontuan hartu beharko dira, beraz, ibiltzeko eta mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonak eta haur eta gazteak, batez ere aldapak, kale eta espaloien zabalera, trafiko-intentsitatea, jende gutxi ibiltzen den inguruen urruntasuna eta abar aztertzen direnean, eta horrexegatik, toki batzuetan besteetan baino garrantzi gehiago eman beharko zaio segurtasunaren gaiari, baina edonola ere, toki bakoitzean egokitu eta aplikatu beharko da diseinu zehatza.

Kantoiak eta kale-zuloak seguruagoak egiteko, farolak jar litezke, atsedeen hartzeko eta hitz egiteko eserlekuak, eskailera-maila zabalak, barandak, eta abar; hau da, dauden oztopo arkitektoniko guztiak ezabatzen ahalegindu eta horrelakoetan jendeak topo egitea erraztu.

4. Ibaiak hirian egiten duen ibilbidearen ondoko bazter eta zuhaiztiak

HAPOak zehaztu duen ibai-ibilguaren definizioan badago segurtasun-arazo hauentzako soluzio bat, aurrez udalerrrian egin den partaidetza-prozesuan eskatu den moduan. Proposatzen diren soluzioak, hirigintza eta ingurumen arloko alderdiak ez ezik, gizarte alderdiak ere kontuan hartuz bideratu behar dira, betiere garrantzia emanez talderik ahulenei (haurrei eta adinekoei) baina berdeguneen kalitatea galdu gabe eta dauden elementuak errespetatuz.



Hiri seguruagoak, iraunkorragoak eta bizitzeko egokiagoak erdiesteko gauzatutako esperientziek agerian uzten dute hiri aberats eta arrakastatsuenen ezaugarri bat parke eta eremu zabal, garbi eta erakargarriak, bizitasun handiko kale eta auzoak eta harreman pertsonalak eta gizarte-trukeak finkatzeko aukerak edukitzea dela; hala, ezaugarri horiek edukitzeaz harro sentitzen dira bertako biztanleak, eta kidetasun eta jabetza sentimendua dute horien gainean.



Horregatik, hobekuntza-neurri horiek eremu publiko horien erakarmena mantentzeko helburua izan behar dute, betiere horiek egokitzea eta bertan egiten

diren jarduerak indarberritzea uztartuz. Zenbait adituk dioten moduan⁸: eremu publiko bat egokia da bertan ezinbestekoak ez diren jarduera asko gertatzen badira, jendea eremu publikora berez helburu batekin irteten bada, hots, eremu horretaz goatzera.

Aditu honen iritziz, hiri osasungarri batek jendeak harremanak egitea erraztuko duten ezaugarriak eduki beharko lituzke, jendeak jendearekin egon beharra duelako, jendea ikusi beharra duelako garapen erabatekoa eta orekatua erdiesteko.

Azkenik proposatuko diren soluzioetan bertako jarduerak eta erabiltzaile multzo desberdinak kontuan hartuz proposatu eta bideratu behar da hiriaren diseinua, funtsean. Hau da, eremu publikoak bizikidetza egiteko eta horietaz goatzeko eremu gisa duten balioaren ikuspegitik diseinatzea, hiriko komunitate desberdinen artean harremanak sor daitezela ahalbidetuz (J. Jacobs, 1962) eta kolektiboaren behaketa eta zaintza erraztuz, horixe baita hiriko segurtasuna bermatzeko modurik onena.

5. Landa-guneetako irispideak

Landa-guneetako irispideak hobetu egingo lirateke baserriekin eta inguru horietan bizi direnekin adostutako jardueren bitartez. Parte-hartzaileek jarduera garrantzitsu batzuk aipatu izan dituzte, esaterako, espaloi txiki batzuk eraikitzea oinez edo bizikletaz joan ahal izateko, pasealeku horiek gainerako herritarrek erabiltzea kirol jarduerak egiteko, edota auzoetatik eguneroko joan-etorriak egiteko bideak edo “laburbideak” hobetzea seinale-sistema batzuen bitartez, oinarrizko informazioa eta landa-guneen eta hiri-guneen arteko kokapenaren aipamen zehatzak jasoz.

Ohar orokor modura, hiriaren erdialdean argitasun egokia eta mantentze-lan egokiak baldin badaude ere, kalitate hori galduz doa erdialdetik urrundu ahala. Normala da, baina hiri-diseinuan ahalegin bat egin beharko litzateke herriaren kanpoaldeko inguruetan, hurrengo urteei begira.



⁸ Jan Gehl. Hiri-espazioa gizatartzea. Eraikinen arteko gizarte-bizitza. Arkitekturako Unibertsitate Ikasketen Bilduma. 2006.

Kanpoaldean aurkitzen diren inguruetakoko argitasuna bideko trafikoari begira jarria dago oso, eta zenbait tokitan nabarmenki hobetu daiteke. Tokiko komunitatearentzat atseginenak izan ohi diren eremuetako diseinua, esate baterako, herri-gunekoa, ahal den neurrian aplikatuz edo imitatuz eremu horiek berriro diseinatzea edo horietan esku hartzea (hondatuta dauden zoladurak, zartatutako fatxadak eta espaloi estuegiak ordezkatzeko, motordunen trafikoak lehenetasuna duen errepideen ordezkari handiz diseinatutako eta kalitateko materialak, argitasun egokia, eserlekuak, landaretza, zuhaiztiak, oinezkoentzako bideak, bide gorriak eta abar erabiliz egindako inguruneak atontzea, gure herriko arkitektura eta nortasun-ezaugarriak osatzea), horrek guztiak eremu atseginagoak eta abegitsuagoak sortzen lagunduko du, eta paseatzera bultzatu eta horrelakoak erabiltzeko eta gozatzeko gogoia piztuko dute, horixe baita hiriko segurtasuna bermatzeko modurik onena.

Kontuan izan beharreko beste alderdi bat errepide zaharrak integratzearena da, oraindik ere izaera hori baitute batzuek, nahiz eta pasaerako trafikoa saihesbide berritik barrena desbideratzen den. Alde horretatik, jarduera garrantzitsua izango litzateke errepide horiek hiriko kale eta pasealeku bihurtzea, zeharkatzen dituzten inguruak indarberritzeko eta, aldi berean, oinezkoen joan-etorriak indartu eta sustatzeko.



Garrantzi handiko gaia da hori, ez segurtasunaren ikuspegitik bakarrik, baita Elorrio osoan eremu publikoak izan behar duen kalitate berdintsuagatik ere, eta hori, abiaduraren gutxieneko kontrola egiteko eta istripu larriak eragozteko arekak edo zaindari lokartuak kokatzea baino harantzago doa. Ongi pentsatutako diseinu erakargarriak proposatzea da kontua, oinez edo bitarteko alternatiboak (bizikletak) erabiliz eguneroko ekipamendu gehienetara joateko aukera emango dutenak, eta herritarrak espazioaren jabe egitea eta biztanle-gune desberdinetako kalitatea hobetzea ahalbidetuko dutenak. Prozesu honetan arazo larrienak atzeman zaizkien bideak Arrasateko errepidea eta Goieta kalea dira.

Aurreko horren guztiaren laburpen modura, esan beharra dago ez dagoela errezeta bakar bat hiriko segurtasunaren arazoa konpondu eta bermatuko duena. Gai honen

inguruan konplexutasun handia dago, gizarte, kultur, hirigintza, ingurumen eta ekonomia mailako hainbat arlo nahastuta daudelako, eta beraz, ez da komeni soluzio partzialik proposatzea. Horregatik, herritarren egitekoak, oro har, eta emakumeenak, bereziki, baita soluzioak bilatzen emakumeek parte hartu ahal izateak ere, berebiziko garrantzia dute. Hiriaren diseinuan eta axola zaizkien gaietan herriko biztanleei protagonismo gehiago ematea dakar horrek, eta halaber, konpromiso politiko bat hartzea atzemandako hutsuneak zuzenduz eta hiria hobetzeko eta eraldatzeko prozesu hori osatuko duten lehentasunak zehaztuz; horren emaitza kalitate handiagoko hiri-ingurune bat izango da beti, ederragoa eta erakargarriagoa, erosoagoa eta seguruagoa denontzat.

5. ELORRIOKO HIRI DEBEKATUAREN MAPA

6. LANTEGIAREN PROGRAMA

Ostirala, 2009ko urtarrilaren 16an

EKITALDI-ARETOA, ITURRI KULTUR ETXEA

19:00h-19:30h

Jardunaldiaren aurkezpena eta kokapena
Lanerako metodologia
Gea21 Talde Teknikoa

19:30h-20:30h

Talde-lana: Hiriko espazioei buruz gogoeta egin eta ideiak agertzea

- Espazio “debekatuak” identifikatzea
- Hiriaren planoan “puntu beltzak” kokatzea

20:30h-21:00h

Talde-lana: Talde-lanaren inguruan ados jartzea

- Taldeen ondorioak

21:00h

Agurra eta jardunaldiaren amaiera

Larunbata, 2009ko urtarrilaren 17an

11:00h-13:30h

Talde-lana: Lantegian “puntu beltz” modura identifikatu diren tokiei buruzko argazki-erreportajea.

ELORRIO

- I. Barrios o zonas residenciales dispersas
- II. Acceso a equipamientos
- III. Calles o cantones
- IV. Rincones y zonas poco transitadas
- V. Accesos a barrios, caseríos o núcleos rurales

